


makina gelditzen ari da
EM FORSTER



itzulpena:
Jasone
Larrinaga

BOOKTEGI



Xerezaderen Artxiboa
Entzuteko literatura



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

EM FORSTER

makina gelditzen ari da

itzulpena:

Jasone Larrinaga

Sarrera

Edward Morgan Forster idazle eta saiakeragile britainiarra izan zen, eta 1879ko urtarrilaren 1ean jaio eta 1970eko ekainaren 7an hil zen. Bere eleberriz ezagunenen artean daude Gela bat ikuspegi batekin, *Howards End* eta Indiarako bidaia txartela, gero film ikusgarrien oinarri izan zirenak.

Hona ekarri dugun ipuina, *Makina gelditzen ari da*, 1909an argitaratu zen lehenengoz aldizkari batean eta gero zenbait bildumatan agertu da, beste kontakizun labur batzuekin. Forsterrek hauxe idatzi zuen 1954ko argitalpeneko hitzaurrean:

‘*Makina gelditzen ari da*’ H.G. Wells-en hasierako paradisuetakoko baten aurreko erreakzioa da.

Hortaz, Forsterrek ez bazuen paradisu bat irudikatu nahi izan, kontakizun hau distopia dugula pentsa dezakegu, edo behintzat asko hurbiltzen dela. Francisco Martorell Campos Filosofiako doktore eta utopiar eta distopiar buruzko tesi baten egilearen arabera, distopia literatura eta zinemagintzaren generoa da, ondorengo zibilizazioen modus operandia kritikatzeko ezaugarri duena, lehendik dagoena baino okerragoa baita.

Kontakizunaren garaian, alegiazko etorkizun batean, gizakiak lurrazpian bizi dira, banakako geletan. Bertan, beharizan guztiak betetzen dituzte izenburuko Makinak, botoi egokiari emanek gero: janaria, arropak, botikak, ur beroa eta hotza, ohea, musika eta hitzaldiak. Lurraren azalean ez dago ezer eta, atmosfera pozoitsua denez gero, arnagailu batekin eta baimen batekin baino ezin da bisitatu. Isolamendua da gizakiek aukeratu duten bizimodua. Horrela, ideietan kontzentratzen dira: hitzaldien bidez ideiak kontsumitu eta zabaltzen dituzte. Intelektualen gizartea da eta fisikoki indartsuak direnak umetan “bartzertu” egiten dira.

Forsterrek hausnarketa modura itxuratu zuen testua eta agertzen zaizkigun gai batzuk dira burokrasia, ideien originaltasuna eta garrantzia, gizakien arteko komunikazioa, eta gizakiaren eta naturaren arteko harremana.

Jendea gela itxietan bizi da eta ezin dira kanpora atera baimenik eta maskararik gabe, konputagailuak erabiltzen dituzte elkarrekin hitz egiteko eta hitzaldiak ikusteko... Hori guztia ezaguna egiten zaigu, 2020ko pandemia, konfinamendua eta orduko egoerak ekartzen dizkigu gogora. Hari horretatik tiraka, 2020ko ekainean, Ipar Irlandako Big Telly Theatre Company antzerki taldeak istorio honen bertsio bat egin zuen eta Zoom plataformaren bidez antzeztu zuen. Ikusleek, oholtzaren ordean, Zoomekin egiten den bilera baten egitura laukiduna ikusten zuten pantailan. Aktoreak isolatuta zeuden, bakoitza bere Zoom-gelan, eta batzuetan elkarri eta beste batzuetan ikusleei hitz egiten zioten. Zer egokiago pandemiaren garaian, isolatuta bizi den

jendeari buruzko istorio bat baino? Francesca Pierini Basileako Unibertsitateko irakaslearen arabera, emanaldia oso esperimentu arrakastatsua izan zen, teknologia testuaren zerbitzura erabili baitzuten modu gogoetsuan.

Dena den, Francisco Martorellek dio Covid-19ak sortutako konfinamendua eta Makina gelditzen ari da lanaren isolamendua ezin direla alderatu. Gure konfinamendua ez zen etorri gobernu totalitario baten azpikeria gaiztoetatik, birus batetik baizik. Gurea aldi baterakoa izan zen eta denok nahi genuen arin bukatzea, etxetik ez irteteko onurak onartu genituen arren.

Orain, irakurle, zure txanda da. Kontakizunaz gozatzeaz gain, sarreratxo honetan garatutakoaz gogoeta egiteko aukera izango duzu testu bikain honekin.

Jasone Larrinaga

1 – Aireontzia

Imajinatu, ahal baduzu, gela txiki bat, hexagono-formakoa, erleen gelaxken modukoa. Ez dago leihotik edo lanparatik datorren argirik, baina argidura leun batek betetzen du. Ez dago irekidurarik hura egurasteko, baina airea freskoa da. Ez dago musika instrumenturik eta, hala ere, nire gogoeta hasi denean, gela honek taupa-taupa egiten du soinu melodiatsuekin. Besaulki bat dago erdian, ondoan irakurketa-mahai bat; horiek dira altzari guztiak. Eta besaulkian haragi-multzo bat dago eserita, andre bat, metro eta erdikoa, onddoa bezain aurpegi zurikoa. Gelatxoa berea da.

Txirrin elektriko batek jo zuen.

Andreak etengailu bat sakatu zuen eta musika isildu egin zen.

“Nor den begiratu beharko dut”, pentsatu zuen, eta aulkia martxan jarri zuen. Mekanismo batek eragiten zion aulkiari, musikari bezala, eta gelaren beste aldera eraman zuen, txirrina oraindik jotzen ari baitzen modu gogaikarrian.

“Nor da?” esan zuen. Andreak ahotsak ernegua erakusten zuen, eten ugari izan baitzituen musika hasi zenetik. Milaka pertsona ezagutzen zituen, alderdi batzuetan gizakien harremanak oso aurreratuta zeuden.

Baina hargailutik zetorren ahotsa entzun zuenean, bere aurpegi zuria irribarreetan zimurtu zen, eta esan zuen:

“Oso ondo. Egin dezagun berba, isolatu egingo naiz. Ez dut uste ezer garrantzitsurik gertatuko denik datozen bost minutuetan — izan ere bost minutu oso eman ahal dizkizut, Kuno. Gero ‘Musika Aro Australiarrean’ izeneko hitzaldia eman behar dut.”

Isolatzeko agintea ukitu zuen, inork ez ziezaion barbarik egin. Gero argiaren aparatua ukitu zuen eta gelatxoa ilunetan geratu zen.

“Arin!” esan zuen, ernegua bueltan. “Arin, Kuno; hemen nago ilunetan denbora alferrik galtzen.”

Baina hamabost segundo luze igaro ziren eskuetan zeukan xafla biribila dir-dir egiten hasi zen arte. Argi urdin leuna azaleratu zen, gorri-beltzera ilundu zen, eta gero semearen irudia ikusi ahal izan zuen. Semea lurraren beste aldean bizi zen, eta berak ere andrea ikus zezakeen.

“Kuno, zein geldoa zaren.”

Semeak seriotasunez egin zuen irribarre.

“Benetan uste dut denbora alferrik galtzea gustatzen zaizula.”

“Lehenago deitu izan dizut, ama, baina beti egon zara lanpetuta ala isolatuta. Gauza garrantzitsu bat esan behar dizut.

“Zer da, laztana? Esan arin. Zergatik ezin izan duzu posta pneumatikoz bidali?”

“Nahiago dudalako horrelako gauza bat ahoz esan. Nahiko nuke...”

“Bai?”

“Zu ni ikustera etortzea nahi dut.”

Vashtik xafla urdineko aurpegiari begiratu zion.

“Baina ikus zaitzaketa!” egin zuen oihu. “Zer gehiago nahi duzu?”

“Ikusi egin nahi zaitut, ez Makinaren bidez,” esan zuen Kunok. “Zurekin berba egin nahi dut, Makina gogaikarri hau erabili barik.”

“Ah, zaude isilik!” esan zuen amak, apur bat ikaratuta. “Ez duzu Makinaren aurka ezer esan behar.”

“Zergatik ez?”

“Ez da egin behar.”

“Jainko batek Makina egin balu bezala egiten duzu berba” esan zuen Kunok. “Seguruenik errezatu egiten diozu triste zaudenean. Gizonek egin zuten, ez ahaztu. Gizon handiek, baina gizonek. Makina asko da, baina ez da dena. Zure antza daukan gauza bat ikusten dut xafla honetan, baina ez zaitut zu ikusten. Zure antza daukan gauza bat entzuten dut telefono honen bidez, baina ez zaitut zu entzuten. Horrexegatik nahi dut hona etortzea. Egin bisita bat, aurrez aurrez ikus dezagun elkar, eta buruan dauzkadan itxaropenei buruz hitz egingo dugu.”

Vashtik erantzun zuen ez zeukala apenas astirik bisita bat egiteko.

“Aireontziak egun bi baino ez ditu behar hortik hona etortzeko.”

“Aireontziak ez zaizkit gustatzen.”

“Zergatik?”

“Ez zait lur marroi itsusia ikustea gustatzen, eta itsasoa, eta izarrak ilun dagoenean. Ezin dut ideiarik izan aireontzi batean.”

“Nik ez ditut izaten beste inon.”

“Zelako ideiak emango dizkizu aireak?”

Kuno apur batean isildu zen.

“Ezagutzen dituzu laukizuzen bat egiten duten lau izar handi, eta laukizuzenaren erdian elkarrengandik hurbil dauden hiru izar, eta izar horietatik zintzilik, beste hiru?”

“Ez, ez ditut ezagutzen. Ez zaizkit izarrak gustatzen. Baina ideia bat eman dizute? Oso interesgarria. Konta iezadazu.”

“Gizon baten antza zeukatela pentsatu nuen.”

“Ez dut ulertzen.”

“Lau izar handiak gizonaren sorbaldak eta belaunak dira. Erdiko hiru izarrak antzina gizonek erabiltzen zituzten gerrikoen bezalakoak dira, eta zintzilik dauden hiru izarrak ezpata baten antzekoak dira.”

“Ezpata bat?”

“Gizonek ezpatak eramaten zituzten aldean, animaliak eta beste gizon batzuk hiltzeko.”

“Ez zait iruditzen oso ideia ona denik, baina originala da, bai. Noiz okurritu zitzaizun?”

“Aireontzian...” Isilik geratu zen, eta Vashtik pentsatu zuen triste zirudiela. Ezin zen ziur egon, Makinak ez baitzituen adierazpenaren ñabardunak transmititzen. Jendearen ideia orokorra baino ez zuen ematen — helburu praktikoetarako behar bezain ona zen ideia, pentsatu zuen Vashtik. Makinak arrazoi osoz uzten zuen alde batera dirdai zehatzezina, filosofia desohoratu batek harremanen benetako muina zela deklaratu zuena, fruta artifizialaren fabrikatzaileek mahatsaren dirdai zehatzezina baztertzuten zuten moduan. Gure arrazak “behar bezain ona” zen gauza bat onartu zuen aspaldi.

“Egia esan,” jarraitu zuen Kunok, “berriro ikusi nahi ditut izar horiek. Izar bitxiak dira. Ez ditut aireontzitik ikusi nahi, ezpada ze lurraren azaletik, gure arbasoek duela milaka urte egin zuten moduan. Lurraren azala bisitatu nahi dut.”

Vashti berriro ikaratu zen.

“Ama, etorri egin behar duzu, lurraren azala ikustearen kaltea zein den niri azaltzeko besterik ez bada.”

“Ez dago kalterik,” erantzun zuen Vashtik, bere burua kontrolatuz. “Baina abantailarik ere ez. Lurraren azala hautsa eta lupetza baino ez da, ez dago abantailarik. Lurraren azala hautsa eta

lokatza besterik ez da, ez dago bizitzarik, eta arnasgailua beharko duzu ala kanpoko airearen hotzak hil egingo zaitu. Berehala hiltzen zara kanpoko airean.”

“Badakit; neurri guztiak hartuko ditut, jakina.”

“Eta gainera...”

“Zer?”

Vashti pentsakor geratu zen, eta kontu handiz aukeratu zituen hitzak. Semea izaera arrarokoa zen, eta espedizioa burutik kendu nahi zion.

“Aro honetako espirituaren aurkakoa da,” baieztatu zuen.

“Horrekin esan nahi duzu, Makinaren aurkakoa?”

“Zentzu batean, baina...”

Gizonaren irudia desagertu egin zen xafla urdinean.

“Kuno!”

Kunok bere burua isolatu zuen.

Une batez, Vashti bakarrik sentitu zen.

Argia piztu zuen, eta gela ikusteak, dirdaiz gainezka eta botoi elektriko beteta, indarberritu egin zuen. Edonon zeuden botoiak eta etengailuak — janaria, musika, arropak eskatzeko botoiak. Bainu beroaren botoia zegoen; hura sakatuz (imitaziozko) marmolezko bainuontzia ateratzen zen lurretik, likido epel desodorizatu batekin ertzeraino beteta. Gero bainu hotzaren botoia zegoen. Bazegoen literatura ekartzen zuen botoia. Eta, noski, lagunekin komunikatzeko erabiltzen zituen botoiak zeuden. Gela, hutsik egon arren, munduan axola zitzaion guztiarekin kontaktuan zegoen.

Vashtiren hurrengo urratsa isolamenduaren etengailua itzaltzea izan zen, eta azken hiru minutuetako gertakarien multzoa gainera erori zitzaion. Gela txirrinen eta tutu mintzodunen zaratekin bete zen. Zelakoa zen janari berria? Gomendatuko luke? Izan al zuen ideiarik azken aldian? Norberak kontu ahal zizkion bere ideiak? Hartzaindegi publikoak bisitatzeko konpromisoa har zezakeen hemendik gutxira? Esan dezagun egun hilabete barru.

Galdera haietako gehienak haserre erantzun zituen — aro azeleratu hartan gero eta gehiago ikusten zen ezaugarria. Janari berria oso eskasa zela esan zuen. Ezin zituela hartzaindegi publikoak bisitatu konpromisoz beteta zegoelako. Ez zeukala ideia propiorik baina bat kontatu ziotela — lau izarrek eta erdian beste hiruk gizon bat irudikatzen zutela: ez zuen uste asko zegoenik hartan. Gero solaskideak itzali zituen, Australiako musikari buruzko hitzaldia emateko ordua zen-eta.

Topaketa publikoen sistema traketsa aspaldi utzia zen; ez Vashti ez bere entzuleak ez ziren beren geletatik mugitu. Besaulkian jesarrita egin zuen berba, eta besteek beren besaulkietan nahiko ondo entzun zioten, eta nahiko ondo ikusi zuten. Aro aurre-mongoliarreko musikaren inguruko azalpen dibertigarri batekin hasi zen, eta gero konkista txinatarraren ondoren izandako abestien eztanda deskribatu zuen. I-San-So eta Brisbaneko Eskolaren metodoak antzinakoak eta primitiboak izan arren, berak uste zuen (hala esan zuen) haiek aztertzea baliogarria izan zitekeela gaur egungo musikarientzat: freskotasuna zeukatzen; batez ere, ideiak zeukatzen.

Vashtiren hitzaldia, hamar minutukoa, ondo hartu zuten, eta bukaeran berak eta entzuleetako askok itsasoari buruzko hitzaldia entzun zuten; bazeuden ideia batzuk itsasotik atera zitezkeenak; hizlariak arnasgailua jantzi eta bisitatu egin zuen oraintsu. Gero Vashtik jan egin zuen, lagun askorekin egin zuen berba, bainua hartu zuen, elkarrizketa gehiago izan zituen, eta ohea eskatu zuen.

Ohe hura ez zitzaion gustatzen. Handiegia zen eta txiki bat nahi zuen. Alferrekoa zen kexatzea, oheak neurri berekoak ziren mundu osoan, eta Makinan aldaketa handiak egin beharko lirateke beste neurri bateko ohea edukitzeko. Vashti isolatu egin zen —beharrezkoa zen, eguna eta gaua ez baitziren existitzen lurpean— eta ohea azkenekoz eskatu zuenetik gertatu zen guztia erreparatu zuen. Ideiak? Baten bat, nekez. Gertakariak... Kunoren gonbidapena gertakaria al zen?

Ondoan, irakurketa-mahaitxoan, zaborraren aroko aztarna bat zegoen, liburu bat. Makinaren Liburua zen. Edozein gertakizun posiblerako jarraibideak zeuden bertan. Beroa edo hotza edo dispepsia sentitzen bazuen edo hitz baten bila bazebilen, liburuaz baliatzen zen eta zein botoi sakatu behar zuen esaten zion. Batzorde Nagusiak argitaratu zuen. Gero eta ohitura zabalduago bati jarraiki, koadernaketa oparoa zeukan.

Ohean eserita, begirunez hartu zuen eskuetan. Gela dirdiratsuan zehar begiratu zuen norbait begira egon baliteke bezala. Orduan, erdi lotsatuta, erdi pozik, “Oi Makina! Oi Makina!” xuxurlatu zuen eta liburua ezpainenara eraman zuen. Hirutan eman zion musu, hirutan makurtu zuen burua, hirutan sentitu zuen onespenearen eldarnioa. Errituala burututa, 1367. orrialdera joan zen, bertan zeudelako aireontzien ordutegiak hego hemisferioko uhartetik, zeinaren azpian bizi baitzen, ipar hemisferioko uhartera joateko, haren azpian semea bizi baitzen.

Pentsatu zuen, “Ez daukat astirik.”

Gela ilundu zuen eta lo egin zuen; esnatu eta argia piztu zuen; jan egin zuen eta ideiak trukatu zituen lagunekin, eta musika entzun eta hitzaldiak entzun zituen; gela ilundu eta lo egin zuen. Bere gainean, azpian eta inguruan, Makinak burrunba egiten zuen etengabe; Vashtik ez zuen zarata nabaritzen, belarrietan zeukala jaio zen-eta. Lurra, bera eramanez, burrunbaka ari zen isiltasuna zeharkatzen zuen bitartean, orain eguzki ikusezinera begiratu, orain izar ikusezinetara. Esnatu eta gelako argia piztu zuen.

“Kuno!”

“Ez dut zurekin berbarik egingo,” erantzun zuen, “hona etorri arte.”

“Lurraren azalean egon zara hitz egin genuenetik?”

Kunoren irudia desagertu egin zen.

Berriro kontsultatu zuen liburua. Oso urduri jarri zen eta aulkiaren bizkaraldean bermatu zen, bihotza taupadaka. Imajinatu bera hortz barik edo ile barik. Aulkia hormarantz biratu zuen eta inoiz erabili gabeko botoi bat sakatu zuen. Horma ireki egin zen geldiro. Irekiduratik tunel bat ikusi zuen, apur bat okertzen zena, helmuga ez ikusteko moduan. Semea ikustera joan behar bazuen, hortxe zegoen bidaiaren hasiera.

Jakina, berak dena zekien komunikazio-sistemari buruz. Ez zegoen misteriorik. Auto bat deituko zuen eta harekin tuneletik hegan egingo zuen, aireontzien geltokiarekin komunikatzen zen igogailura iritsi arte: sistema urteetan eta urteetan erabili zen, Makina mundu osoan ezarri baino askoz lehenago. Eta, jakina, berearen aurretik egon zen zibilizazioa aztertu zuen, sistemaren funtzioak txarto ulertu zituen zibilizazioa, eta jendea gauzetara eramateko erabili zuena, jendeari gauzak ekarri ordez. Garai zahar bitxi haiek, gizonak giroz aldatzera joaten zirenekoak, geletako airea aldatu beharrean! Eta, hala ere, Vashti tunelaren beldur zen: ez zuen ikusi azken umeaz erditu zenetik. Kurba bat egiten zuen, baina ez berak gogoratzen zuen bezala; distiratsua zen, baina ez irakasle batek iradoki zuen bezain distiratsua. Zuzeneko esperientziaren beldurrak hartu zuen Vashti. Gelara egin zuen atzera, eta horma itxi egin zen.

“Kuno,” esan zuen, “Ezin naiz joan zu ikustera. Ez nago ondo.”

Berehala, aparatu ikaragarri bat erori zitzaion sabaitik, eta termometro bat bere bihotzean jarri zen automatikoki. Indarrik gabe zetzan. Kuxin hotz batzuek bekokia freskatu zioten. Kunok telegrama bidalia zion amaren medikuari.

Beraz, giza pasioak oraindik zebiltzan Makinan gora eta behera. Medikuek ahoan proiektatu zion botika edan zuen Vashtik, eta makineria sabaian ezkutatu zen. Kunoren ahotsa entzun zen, zelan zegoen galdezka.

“Hobeto.” Eta suminduta: “Baina zergatik ez zara zeu etortzen niregana?”

“Ezin dudalako leku hau utzi.”

“Zergatik?”

“Edozein unetan, berebiziko gauzaren bat gerta daitekeelako.”

“Egon al zara lurraren azalean inoiz?”

“Oraindik ez.”

“Orduan zer gertatzen da?”

“Ez dizut Makinaren bidez esango.”

Vashtik bere bizitzari ekin zion berriro.

Baina Kunori buruz pentsatu zuen, umetxoa zenean, jaio zenean, haurtzaindegi publikoetara eraman zutenean, Vashtik bertan bisitatu zuenean, Kunok bera bisitatzen zuenean, eta bisita horiek gelditu egin ziren Makinak logela bat eman zionean lurraren beste aldean. “Gurasoen betebeharrak,” zioen Makinaren liburuak, “amaitu egiten dira jaiotzaren unean. P.422327483.” Egia, baina Kunok zeozer berezia zeukan —izan ere, bere seme-alaba guztiak ziren bereziak— eta, azken finean, bidaiari aurre egin behar zion, bidaiatu nahi bazuen. Eta “berebiziko gauzaren bat gerta daiteke.” Zer esan nahi zuen horrek? Gazte baten zentzugabekeriak, zalantzarik ez, baina joan beharra zeukan. Berriro sakatu zuen inoiz erabili gabeko botoia, berriro ireki zen horma, eta tunelaren kurba bistatik galtzen ikusi zuen. Liburua gogor helduta, altxatu egin zen, plataformara abiatu zen albo-alboka, eta autoa eskatu zuen. Gela itxi egin zen: ipar hemisferiorako bidaiari hasi zen.

Izan ere, oso erraza zen. Autoa gerturatu egin zen eta bertan aurkitu zituen berak zeuzkan besaulkien berdin-berdinak. Adierazi zuenean, autoa gelditu egin zen eta igogailurantz joan zen. Beste bidaiari bat zegoen, hilabeteetan aurrez aurre ikusi zuen lehen pertsona. Gutxi bidaiatzen zuen garai haietan zeren, zientziaren aurrerapenari esker, lurra berdin-berdina baitzen leku guztietan. Hartu-eman arinak, zeinetan aurreko zibilizazioak hainbeste itxaropen baitzeukan, bere burua garaituz amaitu zuen. Zer zentzu zeukan Pekinera joateak, Shrewsbury-ren berdina bazen? Zergatik Shrewsbury-ra itzuli gauza guztiak Pekinekoak bezalakoak baziren? Gizonek gutxitan mugitzen zituzten gorputzak; egonezin guztiak ariman kontzentratzen ziren.

Aireontziaren zerbitzua aurreko aroko erlikia bat zen. Gorde egiten zen, gordetzea errazagoa zelako ixtea edo jaramonik ez egitea baino, baina orain biztanleen nahiak gainditzen zituen. Ontziak, bata bestearen atzetik, Rye edo Christchurcheko (antzinako izenak erabili ditut) ate-bideetatik altxatzen ziren, mukuru betetako zeruan nabigatzen zuten, eta hegoaldeko ontziralekuek hurbiltzen ziren, hutsik. Sistema hain ondo doitu zegoen, meteorologiaren hain mendekotasun txikia zeukan, non zeruak, bare nahiz lainotuta egon, kaleidoskopio erraldoi baten itxura baitzeukan eta eredu berberak aldian-aldian errepikatzen baitziren. Vashti nabigatzen ari zen ontzia egunsentian abiatzen zen batzuetan, ilunabarrean beste batzuetan. Baina beti, Rheims-en gainetik igarotzen ari zen bitartean, Helsingfors eta Brasileen arteko bidea egiten zuen ontziaren ondotik joaten zen eta, Alpeen gainetik pasatzen zen hirugarren aldiro, Palermoko ontzidiak atzetik gurutzatzen zuen bere arrastoa. Gaua eta eguna, haizea eta ekaitza,

marea eta lurrikara, ez ziren eragozpen gizonarentzat. Gizonak Leviatan menderatu zuen. Literatura zahar guztiak, Naturaren goraipamenarekin eta Naturaren inguruko beldurrarekin, umetxo baten berba-jarioaren bezain itxura faltsua zeukan.

Baina Vashtik ontziaren albo luzea ikusi zuen, kanpoko airearen kontaktuarekin zikinduta, eta zuzeneko esperientziaren beldurra itzuli zitzaion. Ez zen zinemargazkiko aireontziaren modukoa. Alde batetik usaina zeukan, ez usain sendoa edo txarra, baina usaina zeukan, eta begiak itxita zituela jakin zezakeen gauzaren bat hurbil zegoela. Gero, igogailutik bertarantz joan behar zuen oinez, beste bidaiarien begiraden azpian jarri behar izan zuen. Aurrean zegoen gizonari Liburua erori zitzaion, ezer larririk ez, baina denak urduritu ziren. Geletan, Liburua erortzen bazen, zoruak modu mekanikoan altxatzen zuen, baina aireontziaren pasabidea ez zegoen horretarako prestatuta, eta liburu sakratua hantxe geratu zen. Bidaiariak gelditu egin ziren, ustekabean, eta gizonak, bere jabetzakoa hartu beharrean, besoko muskuluak ukitu zituen, zergatik egin zioten huts ikusteko. Orduan, baten batek esan zuen, zuzenean: “Berandu helduko gara” — eta multzoan sartu ziren; Vashtik orrialdeak zapaldu zituen.

Barruan, Vashtiren larritasuna areagotu egin zen. Prestaketak zaharrak eta zakarrak ziren. Emakumezko laguntzaile bat ere bazegoen, eta hari esan beharko zion zer nahi zuen bidaiari. Jakina, plataforma birakari batek ontziaren luzera osoa zeharkatzen zuen, baina bertatik bere kabinara oinez joatea espero zen. Kabina batzuk beste batzuk baino hobeak ziren, eta berak ez zuen onena lortu.

Laguntzaileak bidegabe jokatu zuela pentsatu zuen, eta haserrealdiak hartu zuen. Beirazko balbulak itxi egin ziren, ezin zuen atzera egin. Sarreraren amaieran, gora eramanean zuten igogailua ikusi zuen, gora eta behera, isil, hutsik. Lauza distiratsuko korridore haien azpian logelak zeuden, maila bat beste baten azpian, lurrean barrena oso urrun iritsiz, eta gela bakoitzean gizaki bat zegoen, jaten, lo egiten edo ideiak sortzen. Eta erlauntzaren sakonean lurperatuta bere gela zegoen. Vashti beldur zen.

“Oj, Makina!”, xuxurlatu zuen, eta Liburua laztandu zuen, eta indarberritu egin zen.

Orduan sarrerako aldeak elkarrekin urtzen zirela iruditu zitzaion, ametsetan ikusten ditugun korridoreen modura, igogailua desagertu egin zen, eroritako Liburua ezkerretarantz irristatu eta desagertu egin zen, lauza distiratsuak ur korrontea bezala igaro ziren, astinaldi txiki bat izen zen, eta aireontzia, tuneletik ateraz, itsaso tropikal bateko uren gainetik altxatu zen.

Gaua zen. Une batez Sumatrako kostaldea ikusi zuen uhinen fosforeszentziak inguratuta eta itsasargiek koroatuta, inork ikusten ez zituen izpiak jaurtikiz oraindik. Horiek ere desagertu ziren, eta izarrek bakarrik distraitu zuten. Ez zeuden guztiz geldirik, baina bere buruaren gainean kulunkatzen ziren hara eta hona, sabai-leiho batetik bestera pilatuz, unibertsoa eta ez aireontzia okertzen balego bezala. Eta, gau argietan sarritan gertatzen den moduan, bazirudien orain perspektiban zeudela, orain plano batean; orain mailaka pilatuta zero infinituetan, orain infinitutasuna ezkutatzuz, teilatu bat gizonen ikuspenak betiko mugatuz. Edozelan ere, onartezinak ziren. “Ilunetan bidaiatu behar al duzu?” oihu egiten zuten bidaiariak haserre, eta laguntzaileak, arduragabe jokatu zuenak, argia piztu zuen eta metal malguzko saretak jaitsi zituen. Aireontziak eraiki zirenean, gauzetara zuzenean begiratzeko desioa bizirik zegoen munduan. Hortik zetorren sabai-zulo eta leihoen kopuru ohiz kanpokoa, eta tamaina bereko deserosotasuna pertsona zibilizatu eta finentzat. Vashtiren kabinan ere izar bat saretaren zirrikitu batetik agertzen zen eta, ordu batzuetako lozorro artegaren ondoren, distira ezezagun batek aztoratu zuen; egunsentia zen.

Aireontziak azkar jo zuen mendebalderantz, baina lurrak bira bizkorragoa egin zuen ekialderantz eta Vashti eta bere bidaideak eguzkirantz arrastatu zituen. Zientziak gaua luza zezakeen, baina apur bat besterik ez, eta Lurraren eguneko errotazioa neutralizatzeko itxaropen handiak igaro egin ziren, seguru aski handiagoak ziren itxaropenekin batera. "Eguzkiaren abiadurari eustea," edo hura aurreratzea, hau baino lehenagoko zibilizazioaren helburua izan zen. Aireplano lasterkariak eraiki ziren horretarako, egundoko abiadura hartzeko gai zirenak, eta garaiko intelektual handienek gidatu zituzten. Mundua inguratzea joan ziren, bira eta bira, mendebaldera, mendebaldera, bira eta bira, gizateriaren txaloen artean. Alferrik. Mundua are azkarrago joan zen ekialderantz, istripu izugarriak gertatu ziren, eta Makinaren Batzordeak, garai hartan ezagun egiten ari zenak, bilaketa hura legez kanpokoa, mekanikaren kontrakoa eta etxegabetasunarekin zigortzeko modukoa zela adierazi zuen.

Gero esango dugu gehiago etxegabetasunari buruz.

Zalantza barik, Batzordea zuzen zegoen. Baina "eguzkia menperatzeko" saiakerak gure arrazak zeruetako gorputzei buruz, edo edozeri buruz, izan zuen azken interes komuna piztu zuen. Azken aldia zen gizonak mundutik kanpoko botere batean pentsatzeko elkartu zirena. Eguzkiak irabazi zuen, baina bere aginte izpiritualaren amaiera zen. Egunsentiak, eguerdiak, ilunabarrak, zodiakoaren bideak ez zuten ez gizonen bizitza ez bihotza ukitzen, eta zientzia lurraren barrura erretiratu zen, dudarik gabe konpondu zitzakeen arazoetan kontzentratzeko.

Bada, Vashtik bere kabina argi-zerrenda arrosa batek inbadituta aurkitu zuenean, haserretu egin zen eta sareta estutzen saiatu zen. Baina sareta gorantz kiribildu zen, eta zerumugan hodeitxo arrosak ikusi zituen, urdin koloreko hondo baten kontra kulunka, eta eguzkiak gora egiten zuen heinean, haren distira zuzenean sartu zen horma osoan behera, urrezko itsaso baten antzera. Igo eta erori egiten zen aireontziaren mugimenduarekin, olatuek gora eta behera egiten duten moduan, baina etengabe aurrera egiten zuen, itsasgorak aurrera egiten duen moduan. Kontuz ibili ezean, aurpegian joko zion. Izu-ikara batek astindu zuen, eta laguntzaileari deitu zion. Laguntzailea ere izututa zegoen, baina ezin zuen ezer egin; ez zegokion berari sareta konpontzea. Vashtik kabina aldatzea proposatu besterik ezin zuen egin, eta horretarako prestatu zen.

Jendea ia berdina zen mundu osoan, baina aireontziko laguntzailea, bere aparteko zereginengatik agian, normala baino apur bat gehiago hazi zen. Sarritan, bidaiariei zuzenean hitz egin behar izaten zien, eta horrek nolabaiteko zakartasun eta originaltasun bat ematen zion bere jokamoldeari. Vashti oihu batez eguzki-izpietatik aldendu zenean, basakeriaz jokatu zuen: eskua luzatu zuen hura lasaitzeko.

"Zelan ausartzen zara!" egin zuen garrasi bidaiariak. "Ez izan lotsagabea!"

Emakumea harrিতuta zegoen, eta barkamena eskatu zuen erortzen utzi ez ziolako. Jendeak ez zuen inoiz elkar ukitzen. Ohitura hori zaharrituta zegoen, Makina zela-eta.

"Non gaude orain?" galdetu zuen Vashtik harrokeriaz.

"Asiaren gainean," esan zuen laguntzaileak, adeitsua izateko ahaleginetan.

"Asia?"

"Barkatu nire hizkera arrunta. Aireontziarekin igarotzen ditudan lekuei beren izen ez-mekanikoekin deitzeko ohitura hartu dut."

"Ah, gogoratzen dut Asia. Mongolak hangoak ziren."

"Gure azpian, aire zabalean, Simla izena zeukan hiria zegoen."

"Inoiz entzun al duzu mongolei eta Brisbaneko eskolari buruz?"

"Ez."

“Brisbane ere aire zabalean zegoen.”

“Eskuineko mendi horiek... utzidazu erakusten.” Metalezko pertsiana bat atzera bota zuen. Himalaiako kate nagusia agertu zen. “Garai batean munduaren gailurra esaten zitzairen mendi horiei.”

“Hori bai izen barregarria!”

“Gogoratu behar duzu, zibilizazioaren hasiera baino lehen, izarrak ukitzen zituen harresi zeharkaezina ziruditela. Uste zen jainkoak bakarrik existi zitezkeela gailur horien gainetik. Zelan egin dugun aurrera, Makinari esker!”

“Zelan egin dugun aurrera, Makinari esker!” esan zuen Vashtik.

“Zelan egin dugun aurrera, Makinari esker!” errepikatu zuen bezperan Liburua erortzen utzi zuen bidaiariak, korridorean zutik baitzegoen.

“Eta gauza zuri hori arrakalatan? Zer da?”

“Ahaztu egin zait horren izena.”

“Estali leihoa, mesedez. Mendi horiek ez didate ideiarik ematen.”

Himalaiaren iparraldeko aldea itzal sakonean zegoen: Indiako maldan eguzkia nagusitu berria zen. Basoak literatur garaian suntsitu ziren egunkarietarako oreka egiteko, baina elurra goizeko loriara esnatzen ari zen, eta hodeiak oraindik zintzilikatzen ziren Kangchenjungaren bularretan. Lautadan hirien aurriak ikusten ziren, harresietatik ibai txikiak arrastatzen zirela, eta haien alboetan, batzuetan, ate-bideen zantzuak, gaur egungo hiriak seinatuz. Ikuspegi horren gainetik aireontziak presaka zihoazen, tarteko espazioa segurtasun sinestezinarekin zeharkatuz, eta gorantz egiten zuten axolagabekeriak beheko atmosferaren asalduretatik ihes egin eta eta Munduko Gailurra gurutzatu nahi zutenean.

“Aurrera egin dugu, benetan, Makinari esker!” errepikatu zuen laguntzaileak, eta metalezko sareta baten atzean ezkutatu zuen Himalaia.

Eguna aurrera zihoan adorerik gabe. Bidaiari bakoitza bere kabinan zegoen eserita, ia higuin fisiko batez elkar saihestuz eta lurraren azpian berriro egoteko irrikaz. Zortzi edo hamar ziren, gehienak gizon gazteak, haurtzaindegi publikoetatik lurreko hainbat lekutan hil zirenen geletan bizitzera bidali zituztenak. Liburua erortzen utzi zuen gizona etxerako bidean zegoen. Sumatrara bidali zuten arraza ugaltzeko. Vashti bakarrik zihoan bere borondatez.

Eguerdian bigarren begirada bat bota zion lurrari. Aireontzia beste mendilerro bat zeharkatzen ari zen baina ez zuen ia ezer ikusten, hodeiengatik. Behean harkaitz beltz ugari nabaritzen ziren, eta gris lausoa izateraino uztartzen ziren. Haien formak fantastikoak ziren; batek gizon makurtu baten antza zeukan.

“Hemen ez dago ideiarik,” esan zuen Vashtik ahopeka, eta Kaukasoa metalezko sareta baten atzean ezkutatu zuen.

Iluntzean berriro begiratu zuen. Urre koloreko itsaso bat zeharkatzen ari ziren, uharte txiki asko eta penintsula bat zituena.

Berriro esan zuen, “Hemen ez dago ideiarik,” eta Grezia ezkutatu zuen metalezko sareta baten atzean.

2 – Konponketa Aparatua

Sarrera batetik, igogailu batetik, nasa tubular batetik, plataforma batetik, ate lerragarri batetik... irteerako urrats guztiak alderantzikatu ondoren, Vashti semearen gelara iritsi zen, eta berea bezalakoxea zena. Esan zezakeen bisita alferrekoa izan zela. Botoiak, heldulekuak, Liburua zeukan irakurketa-mahaia, tenperatura, giroa, argiztapena... dena berdina zen. Eta Kuno bera, bere haragiaren haragia, bere ondoan bazegoen azkenean, zein zer horren onura? Vashti ondoegi hezia zegoen hari eskua emateko.

Begiak apartatuz, honela mintzatu zen:

“Hemen nago. Bidaia ikaragarria izan dut, eta biziki atzeratu dut nire arimaren garapena. Ez du merezi, Kuno, ez du merezi. Nire denbora preziatuegia da. Eguzkiaren argiak ia ukitu egin nau, eta jende zakarrarekin egin dut topo. Minutu batzuk baino ezin naiz gelditu. Esan nahi duzuna, eta gero itzuli egin behar dut.”

“Etxegabetasunarekin mehatxatu naute,” esan zuen Kunok.

Orain begiratu egin zion.

“Etxegabetasunarekin mehatxatu naute, eta ezin nizun horrelako gauza bat Makinaren bidez esan.”

Etxegabetasunak heriotza esan nahi du. Biktima airearen eraginpean jartzen da, eta aireak hil egiten du.

“Kanpoan egon naiz zurekin azkenekoz hitz egiten nuenetik. Berebiziko gauza gertatu da, eta deskubritu egin naute.”

“Baina zergatik ez zenuke kanpora joan behar?” egin zuen oihu Vashtik. “Erabat legezkoa da, erabat mekanikoa, lurraren azala bisitatzea. Orain dela gutxi itsasoari buruzko hitzaldi batean egon naiz; ez dago eragozpenik; arnagailua eskatzen duzu eta Irteteko Baimena lortzen duzu. Ez da jende espiritualak egin ohi duen gauza bat, eta ez egiteko erregutu nizuke, baina ez dago eragozpen juridikorik.”

“Ez neukan Irteteko Baimenik.”

“Orduan zelan irten zenuen?”

“Modu bat aurkitu nuen nire kabuz.”

Esaldiak ez zeukan ez hankarik ez bururik Vashtirentzat, eta semeak errepikatu egin behar izan zion.

“Modu bat zure kabuz?” esan zuen ahopeka. “Baina hori txarto dago.”

“Zergatik?”

Galderak zur eta lur utzi zuen Vashti.

“Makina gurtzen hasi zara,” esan zuen Kunok hoztasunez. “Erlijioaren kontrakoa iruditzen zaizu nire kabuz irteteko modua aurkitu izana. Horixe uste zuen Batzordeak etxegabetasunarekin mehatxatu nindutenean.”

Vashti haserretu egin zen. “Ez dut ezer gurtzen!” esan zuen. “Oso aurreratua naiz. Ez dut uste erlijigabekoa zarenik, ez baita erlijiorik gelditzen. Garai batean existitzen ziren beldur eta sineskeria guztiak Makinak suntsitu zituen. Esan nahi nuen zure kabuz bide bat aurkitzea zela... Gainera, ez dago bide berririk kanpora joateko.”

“Hori da uste orokorra.”

“Ate-bideetatik izan ezik, eta horretarako Irteteko Baimena behar da, ezinezkoa da kanpora joatea. Liburuak hori dio.”

“Tira, Liburua erratuta dago, zeren nik oinez irten dut.”

Izan ere, Kunok nolabaiteko indar fisikoa zeukan.

Garai hartan, gihartsua izatea demeritua zen. Jaiotzean haur guztiak aztertzen ziren, eta behar ez zen indarra iragartzen zuena suntsitu egiten zen. Errukitsuek protesta egin zezaketen, baina kirolari bat bizirik uztea ez zatekeen benetako ontasuna izango; inoiz ez zatekeen zoriontsu izango Makinak emango zion bizimodu hartan; desiratuko zukeen zuhaitzak igotzea, ibaietan bainatzea, belardiak eta muinoak bere gorputza neurtu ahal izateko. Gizona bere ingurunera egokitu behar da, ezta? Munduaren egunsentian ahulak Taigeto mendian utzi behar ziren, ilunabarrean indartsuek eutanasia jasango dute, Makinak aurrera egin dezan, Makinak aurrera egin dezan, Makinak aurrera egin dezan betiko.

“Badakizu espazioaren zentzua galdu dugula. Esan ohi dugu ‘espazioa suntsitu dugu,’ baina ez dugu espazioa suntsitu, haren zentzua baizik. Gure zati bat galdu dugu. Berreskuratzea erabaki nuen, eta nire gelaren kanpoaldean dagoen trenbidearen plataforman gora eta behera ibiltzen hasi nintzen. Gora eta behera, nekatu nintzen arte, eta horrela berreskuratzen nituen ‘hurbil’ eta ‘urrun’ kontzeptuen esanahia. ‘Hurbil’ da oinez arin joan naitekeen lekua, ez trenak edo aireontziak arin eramango nauten lekua. ‘Urrun’ da oinez arin joan ezin naitekeen lekua; pasabidea ‘urrun’ dago, trenari deituz gero hogeita hemezortzi segundotan iritsi naitekeen arren. Gizona da neurria. Hori izan zen nire lehen irakasgaia. Gizonaren oinak dira distantziaren neurria, haren eskuak dira jabetzaren neurria, haren gorputza da gauza maitagarrien, desiragarrien eta indartsuen neurria. Gero urrunago joan nintzen: orduantxe deitu nizun lehenengoz, eta ez zenuen etorri nahi.

“Hiri hau, badakizu, lurrazalaren azpian dago eraikita, eta ate-bideak baino ez dira agerian geratzen. Nire gelaz kanpoko plataforman zehar ibili ondoren, ondoko plataformarako igogailua hartu eta hura korritu nuen, eta horrela plataformak banan-banan, altuenera iritsi arte, eta haren gainean hasten da lurra. Plataforma guztiak dira berdin-berdinak, eta haietan ibiltzean espazioaren sentsazioa eta giharrak garatzea besterik ez nuen lortu. Uste dut pozik egon behar nukeela horrekin —ez da gutxi— baina oinez eta gogoetan nenbilela, bururatu zitzaidan gizonak oraindik kanpoko airea arnasten zuten garaietan eraiki zituztela gure hiriak, eta aireztatze-hodiak egon zirela langileentzat. Ez neukan beste ezer buruan, aireztatze-hodi haiek baino ez. Makinak azkenaldian garatu dituen janari-tutu, botika-tutu eta musika-tutu guztiekin haiek suntsitu ote zituzten? Edo aztarnaren batek iraun ote zuen? Gauza bat ziurra zen. Inon aurkitzekotan, solairu goreneko trenbideko tuneletan izango litzateke. Gainerako lekuetan, espazio guztia okupatuta zegoen.

“Azkar ari naiz nire istorioa kontatzen, baina ez pentsa koldarra ez nintzenik, ezta zure erantzunek inoiz tristatu ez nindutenik ere. Ez da egokiena, ez da mekanikoa, ez dago ondo trenbideko tunel batetik ibiltzea. Ez nintzen beldur errail elektrifikatu bat zapaldu eta hilko nintzenik. Zerbait ukiezinagoaren beldur nintzen, Makinak aurreikusten ez zuena egiteaz. Orduan pentsatu nuen, ‘Gizona da neurria’, eta joan egin nintzen, eta bisita askoren ondoren irekidura bat aurkitu nuen.

“Tuneletan, jakina, argia zegoen. Dena da argia, argi artifiziala; iluntasuna salbuespena da. Halanda ze, paneletan zirrikitu beltz bat ikusi nuenean, salbuespena zela jakin nuen, eta poztu egin nintzen. Besoa sartu nuen —ezin nuen gehiago sartu hasieran— eta alde batera eta bestera mugitu nuen estasian. Beste panel bat askatu nuen, eta burua sartu nuen zuloan, eta garrasi egin nuen iluntasunean: ‘Heltzen ari naiz, lortuko dut,’ eta nire ahotsak pasabide amaigabeetan durundi egin zuen. Bazirudien iluntzero izarren argitara eta beren emazteengana itzuli ziren

langile hil haien izpirituak entzuten nituela, eta aire zabalean bizi izan ziren belaunaldi guztiek dei egiten zidatela, 'Lortuko duzu, heltzen ari zara.'

Isildu egin zen, eta, zentzugabea bazen ere, Kunoren azken hitzek hunkitu egin zuten Vashti. Izan ere, Kunok berriki eskatu zuen aita izatea, eta komiteak atzera bota zuen eskaera. Bere moldea ez zen Makinak iraunarazi nahi zuena.

"Orduan tren bat pasatu zen. Oso hurbil pasatu ere, baina burua eta besoak zuloan sartu nituen. Nahikoa egin nuen egun baterako, eta arrastaka itzuli nintzen plataformara, igogailuan jaitsi nintzen eta ohea eskatu nuen. A zer ametsak! Eta berriro deitu nizun, eta berriro esan zenidan ez zinela etorriko."

Vashtik buruari eragin eta esan zuen:

"Ez. Ez egin berba gauza izugarri horietaz. Nahigabetu egiten nauzu. Zibilizazioa zakarretara botatzen ari zara."

"Baina espazioaren zentzua berreskuratu nuen, eta gizonak ezin du atsedetik hartu horren ondoren. Erabaki nuen zuloa joatea eta hoditik igotzea. Eta horrela entrenatu nituen besoak. Egunero mugimendu barregarriak egiten nituen, giharretan min izan arte, eta eskuetatik zintzilikatze gain nintzen eta oheko burkoa luzatuta eduki nezakeen minutu askotan zehar. Gero arnagailu bat eskatu nuen, eta hasi egin nintzen.

"Hasieran erraza zen. Morteroa usteldu egin zen, eta laster beste panel batzuk bultzatu eta iluntasunera igo nintzen haien atzeko aldera, eta hildakoen izpirituak kontsolatu egin ninduten. Ez dakit zer esan nahi dudan horrekin. Sentitu nuena esaten dut. Lehen aldiz sentitu nuen ustelkeriaren kontrako protesta bat aurkeztu zela, eta hildakoek kontsolatzen ninduten bezala, nik jaiogabeak kontsolatzen nituela. Gizateria existitzen zela eta arroparik gabe existitzen zela. Nola azal dezaket hori? Biluzik zegoen, gizateriak biluzik zirudien, eta tutu eta botoi eta makineria guzti horiek ez ziren gurekin mundura etorri, eta ez digute jarraituko abiatzean, eta ez daukate garrantzirik gu hemen gauden bitartean. Indartsua izan banintz, soineko arropa guztiak erauziko nituzkeen, eta aire zabalera joango nintzatekeen, estalkirik gabe. Baina hori ez da niretzat, agian ezta nire belaunaldiarentzat ere. Arnagailuarekin, arropa higienikoekin eta pilula dietetikoekin igo nintzen! Hobe horrela, inola ere ez baino.

"Eskuko eskailera bat zegoen, metal primitibo batez egin. Nasako argia bere beheengo mailetara erortzen zen, eta ikusi nuen zuzen-zuzen gorantz zihoala hodiaren hondoko hondakinetatik. Beharbada gure arbasoek dozena bat aldiz egiten zuten gora eta behera egunero, hura eraikitzen ari zirenean. Igotzen ari nintzela, ertz zakarrek eskularruak ebakitzen zizkidaten eta eskuak odoletan neuzkan. Argiak tarte labur batean lagundu zidan, eta gero iluntasuna etorri zen eta, are okerrago, isiltasuna, belarriak ezpata batek bezala zulatuz. Makinak burrunba egiten du! Bazenekien? Burrunba gure odolean sartzen da, eta gure pentsamenduen gidari ere izan daiteke. Batek daki! Bere boteretik urruntzen ari nintzen. Gero pentsatu nuen: 'Isiltasun honek esan nahi du desegoki jokatzeko ari naizela'. Baina ahotsak entzun nituen isiltasunean, eta berriro indartu ninduten." Barre egin zuen. "Ahots haiek behar nituen. Eta orduantxe buruarekin zerbait jo nuen."

Vashtik hasperen egin zuen.

"Kanpoko airetik babesten gaituzten tapoi pneumatiko horietako batera iritsi nintzen. Agian aireontzian ikusi dituzu. Ilunetan, oinak eskailera ikusezin baten mailetan, eskuak moztuta; ezin dut azaldu nola gainditu nuen zati hori, baina ahotsek oraindik kontsolatzen ninduten, eta haztamuka hasi nintzen itxuraren baten bila. Tapoiak, uste dut, metro bi eta erdi inguru izango zituen. Eskua gainetik pasa nuen ahal nuen neurrian. Oso leuna zen. Ia erdiraino ukitu nuen. Ez

erdi-erdiraino, besoa laburregia nuen eta. Orduan ahotsak esan zuen: ‘Egin salto. Merezi du. Heldulekuren bat egon daiteke erdian, eta zuk oratu egin diezaiokezu, eta guregana etorri zure kabuz. Eta heldulekurik ez badago, agian erori eta txiki-txiki egin zaitezke— baina merezi du halere: hala ere guregana etorriko zara zure kabuz.’ Halanda ze, salto egin nuen. Helduleku bat zegoen eta...”

Isilik gelditu zen. Malkoak agertu ziren amaren begietan. Bazekien Kuno kondenatuta zegoela. Ez bazen gaur hiltzen, bihar hilko zen. Munduan ez zegoen lekurik halako pertsona batentzat. Eta bere nahigabea nazkarekin nahastu zen. Lotsa ematen zion halako semeaz erditu izanak, bera beti hain errespetagarria eta ideiaz betea izanik. Benetan ote zen berak palankak eta botoiak erabiltzen irakatsi eta Liburuko lehen ikasgaiak eman zizkion mutikoa? Ezpaina itxuragabetzen zion ileak berak erakusten zuen itxura basati batera itzultzen ari zela. Makinak ezin du errukirik izan atabismoekin.

“Helduleku bat zegoen, eta oratu egin nion. Ilunpetan zintzilik geratu nintzen, trantzean, eta lan haien burrunba entzun nuen, hiltzorian dagoen amets baten azken xuxurla bezala. Axola zitzaizkidan gauza guztiak eta hodian bidez nirekin hitz egin zuten pertsona guztiak oso txiki iruditu zitzaizkidan. Bitartean heldulekua biraka hasi zen. Nire pisuak zerbait abiarazi zuen eta jira egin nuen poliki, eta gero...”

“Ezin dut deskribatu. Etzanda nengoen, aurpegia eguzkitan. Sudurretik eta belarrietatik odola zeridan eta izugarritzko orroa entzun nuen. Tapoia, ni hari itsatsita nengoela, lurretik kanpora atera zen, besterik gabe, eta hemen behean egiten dugun airea zulotik gora ari zen ihes egiten. Iturri bat bezala lehertu zen. Arrastaka itzuli nintzen hara —goiko aireak min ematen baitu— eta, nolabait esateko, zurrutada handiak hartu nituen ertzetik. Arnasgailuak hegaz egin zuen auskalo nora, arropak urratuta neuzkan. Ezpainak zuloaren ondoan neuzkala etzan nintzen, eta zurrut egin nuen odoljariora gelditu zen arte. Ezin duzu gauza bitxiagorik imajinatu. Belardiko zulo hura —laster mintzatuko naiz horretaz—, eguzkia bertan distiratzten, ez arraiotsu baizik eta hodei nabarren artetik, bakea, arduragabetasuna, espazioaren zentzua, eta, masaila igurtziz, gure aire artifizialaren iturri burrunbatsua! Laster ikusi nuen arnasgailua, gora eta behera balantzaka, buruaren gainean neukan korrontean, eta are gorago aireontzi asko zeuden. Baina inork ez du begiratzen aireontzietatik kanpora eta, nolana ere, ezin izango ziren nire bila joan. Hantxe nengoen, behea jota. Eguzkiak argi pixka bat egin zuen hodian behera, eta eskaileraren goren-goreneko maila utzi zuen agerian, baina alferrekoa zen haraino iristen ahalegintzea. Jarioak gorantz jaurtiko ninduen edo barrura erori eta hil egingo nintzatekeen. Belarretan etzan besterik ezin nuen egin, zurrupaka eta zurrupaka, eta noizean behin ingurura begiratzen nuen.

“Banekien Wessexen nengoela, hasi baino lehen hari buruzko hitzaldi batera joan nintzen-eta. Wessex gela honen gainean dago. Garai batean estatu garrantzitsua izan zen. Bertako erregeek hegoaldeko kostalde osoa menperatzen zuten Andredswald-tik Kornualleseraino, Wansdyke lubetak iparraldean babesten zituen bitartean, lur garaietan hedatuz. Irakaslearen ardura bakarra Wessexen goraldia zen, beraz, ez dakit zenbat denbora izan zuen nazioarteko boterea, eta hori jakiteak ere ez zidan lagunduko. Egia esan, barrea besterik ezin nuen egin une horretan. Hantxe nengoen ni, tapoi pneumatiko bat alboan eta arnasgailu bat buru gainean saltoka, hirurok kartzelaturik, belarrez estalitako eta iratzez inguratutako sakonune batean.”

Eta serio jarri zen berriro.

“Eskerrak hura sakonunea zela. Airea barruan sartzen hasi zen, urak katilua betetzen duen bezala. Arrastaka joan ninteke. Gero zutitu egin nintzen. Aire nahasia arnastu nuen, eta min egiten

zidan airea nagusitzen zen alboetara igotzen saiatzen nintzenean. Ez zen hain txarra izan. Ez nituen nire pilulak galdu eta pozik jarraitu nuen, barregarri, eta Makinari zegokionez, ahaztu egin nuen erabat. Nire helburu bakarra iratzea zegoen gailurrera iristea zen, eta harantzago zeuden objektuak ikustea.

“Zitzu bizian joan nintzen maldatik. Aire berria garratzegia zen oraindik niretzat eta zeharka-meharka itzuli nintzen, une batez gauza gris bat ikusi ondoren. Eguzkia asko ahuldu zen, eta gogoratu nintzen Eskorpion zegoela — horri buruzko hitzaldi batean egon nintzen. Eguzkia Eskorpion badago eta Wessexen bazaude, horrek esan nahi du ahalik eta azkarren ibili behar duzula, edo ilunegi egongo da. (Hitzaldi batetik jaso dudan lehen informazio erabilgarria da, eta azkena izango dela espero dut.) Aire berria arnasten ahalegintzera eraman ninduen horrek, etsipenez, eta urmaetik ausartu bezain urrutien joatera. Hutsunea oso astiro betetzen zen. Batzuetan iruditzen zitzaidan iturria indar gutxiagorekin aritzen zela. Bazirudien nire arnasgailuak lurretik hurbilago egiten zuela dantza, orroa moteltzen ari zen.”

Isilik geratu zen.

“Ez dut uste hau zuretzat interesgarria denik. Gainerakoa are gutxiago interesatuko zaizu. Ez dago ideiarik bertan, eta nahiago nuke etortzeko eskatu ez banizu. Ezberdinegiak gara, ama.”

Vashtik jarraitzeko esan zion.

“Ilunabarra zen muinora igo nintzenerako. Ordurako eguzkia zerutik ia desagertuta zegoen eta ezin nuen ondo ikusi. Zuk Munduko Gailurra zeharkatu berri duzu eta ez duzu entzun nahi izango ikusi nituen muino txikiez, mendixka txiki eta kolore gabekoez. Baina niretzat bizirik zeuden, eta estaltzen zituen zohikatza azal bat zen; haren azpian giharrak uztartzen zitzaizkien, eta sentitzen nuen mendixka horiek indar kalkulaezinez dei egin zietela gizakiei iraganean eta gizakiek maite izan zituztela. Orain lo zeuden, agian betiko. Ametsetan, gizateriarekin bat egiten dute. Zorionsua gizona, zorionsua emakumea, Wessexko muinoak esnatzen dituen. Izan ere, lo dauden arren, ez dira inoiz hilko.”

Kunoren ahotsa goratu egin zen gogo beroz.

“Ezin duzu ikusi, zuek hizlariok ezin duzue ikusi gu garela hiltzen ari garenak, eta hemen behean benetan bizi den gauza bakarra Makina dela? Guk sortu genuen Makina, gure borondatea betetzeko, baina orain ezin dugu hura gure borondatea egitera behartu. Espazioaren eta ukimenaren zentzuak kendu dizkigu, giza harreman oro lausotu eta maitasuna haragizko ekintza batera murriztu du, gure gorputzak eta nahiak geldiarazi ditu, eta bera orain gurtzera behartzen gaitu. Makina garatzen ari da, baina ez gure ildoetan. Makina aurrera doa, baina ez gure helburura. Bere arteriak zeharkatzen dituen odol-globuluak bezala existitzen gara, eta gu gabe funtzionatu ahal izango balu, hiltzen utziko gintuzke. Ah, ez daukat beste erremediorik —edo bat bakarra behintzat—, gizonei behin eta berriz esatea baino Wessexeko muinoak ikusi ditudala, Ælfridek daniarrak bota zituenean ikusi zituen bezala.

“Eguzkia sartu zen. Ahaztu egin zait esatea laino gune bat zegoela nire muinoaren eta beste mendixka batzuen artean, perlaren kolorekoa.”

Isilik geratu zen bigarrenez.

“Jarraitu,” esan zion amak akiduraz.

Kunok buruari eragin zion.

“Jarraitu. Esaten duzun ezerk ezin nau larritu orain. Gogortuta nago.”

“Gainerakoa esateko ustea neukan, baina ezin dut: badakit ezin dudala: agur.”

Vashti zalantzan zegoen. Kirioak dantzan zeuzkan Kunoren biraoekin. Baina jakingura ere bazeukan.

“Ez da bidezkoa,” kexatu zen. “Mundua zeharkatzea eskatu didazu zure istorioa entzuteko, eta entzun egingo dut. Esan, ahalik eta laburren, denbora galtze negargarria baita hau, esan iezadazu zelan itzuli zinen zibilizaziora.”

“Ah, hori!” esan zuen Kunok, harrিতuta. “Zibilizazioari buruz entzun nahi duzu. Jakina. Arnasgailua erori zen puntura heldu naiz?”

“Ez, baina orain ulertzen dut dena. Arnasgailua jarri zenuen, eta lurraren azaletik ibiltzea lortu zenuen ate-bide batera iritsi arte, eta han zure jokabidearen berri eman zioten Batzorde Nagusiari.”

“Inondik ere ez.”

Eskua bekokitik pasatu zuen, zirrara bortitzen bat uxatuz bezala. Gero, bere kontakizunari ekin zion berriro.

“Arnasgailua iluntzean erori zen. Iturria ahulagoa zirudielako esan nuen, ezta?”

“Bai.”

“Iluntzean, arnasgailua erori egin zen. Esan dudana moduan, erabat ahaztuta neukan Makina, eta ez nion arreta handirik eman orduari, beste gauza batzuekin arduratua bainengoen. Aire putzua neukan, eta bertan murgildu ninteke kanpoko aire zorrotz jasanezina egiten zitzaidanean, eta agian egunetan iraungo zuen, ez baitzen haizerik sortzen hura sakabanatzeko. Beranduegi konturatu nintzen ihesa gelditu izanak zer esan nahi zuen. Badakizu, tuneleko zuloko konponduta zegoen; Konponketa Aparatua; Konponketa Aparatua nire bila zetorren.

“Beste abisu bat neukan, baina ez nion kasurik egin. Zerua, egunez baino argiagoa zegoen gauzez, eta ilargia, gutxi gorabehera zeruaren erdialdean zegoena eguzkiaren atzean, une batzuetan oso argitsu sartzen harantxoan. Neure ohiko lekuan nengoen ni —bi atmosferen arteko muga—, gauza ilun bat ikusi uste izan nuenean harantxoaren hondoa zehar mugitzen eta hodian desagertzen. Ergel baten moduan, korrika jaitsi nintzen. Makurtu eta entzun egin nuen, eta sakonean karraska arin bat entzun nuela iruditu zitzaidan.

“Orduan beldurtu egin nintzen, baina beranduegi zen. Arnasgailua janztea eta harantxotik irtetea erabaki nuen. Baina arnasgailua ez zegoen. Banekien zehazki non erori zen, tapoiaren eta irekieraren artean, eta belarretan utzi zuen marka ere ikusten nuen. Ez zegoen, eta konturatu nintzen gauza txarren bat zetorrela, eta hobe nuela beste airera ihes egin eta, hil behar banuen, perla koloreko hodeirantz korrika hiltzea. Abiatu ere ez nintzen egin. Hoditik... beldurgarriegia da. Har bat, har luze eta zuri bat, hodontik atera zen eta belarretan irristatzen ari zen ilargiaren argitan.

“Garrasi egin nuen. Egin behar ez nuen guztia egin nuen; ostiko egin nion izakiari ihes egin ordez, eta berehala kizkurtu zitzaidan orkatilan. Orduan borroka egin genuen. Harrak harantxo osoan zehar korrika egiten utzi zidan, baina hanketan gora egin zidan lasterka nindoala. ‘Lagundu!’ oihukatu nuen. (Zati hori ikaragarriegia da. Inoiz jakingo ez duzun zatia da.) ‘Lagundu!’ oihukatu nuen. (Zergatik ezin dugu isilean sufritu?) ‘Lagundu!’ oihukatu nuen. Gero oinak elkartu zizkidan, erori egin nintzen, iratze maiteetatik eta muino bizietatik urrundu ninduen, eta metalezko tapoi handiaren ondotik igaro nintzen (zati hau konta diezazuket), eta pentsatu nuen berriro salbatuko nintzela heldulekua harrapatuz gero. Hura ere bilduta zegoen, estalduta. Oi, harantxo osoa zegoen gauza haiez beterik. Alde guztietara arakatzen zuten, lekua husten ari ziren, eta beste batzuen mutur zuriak zulotik irteten ari ziren, behar izanez gero prest. Mugitu zitekeen guztia ekarri zuten: sastrakak, iratze-sortak, dena, eta han joan ginen denok korapilatuta infernura. Ikusi nituen azken gauzak, tapoia gure atzean itxi baino lehen, izar batzuk izan ziren, eta nire gisako gizon bat zeruan bizi zela sentitu nuen. Izan ere nik borrokatu egin nuen, azken-azkenerraino egin nuen borroka, eta buruarekin eskaileraren kontra jotzean soilik gelditu nintzen.

Gela honetan esnatu nintzen. Ez zegoen harrik. Aire artifiziala, argi artifiziala, bake artifiziala neuzkan inguruan, eta adiskideek hitz egiteko tutuetatik deitzen ari ziren, azken aldi honetan ideia berririk izan ote nuen jakiteko.”

Hortxe bukatu zen Kunoren istorioa. Ezin zitekeen haren inguruan eztabaidatu, eta Vashti joateko prestatu zen.

“Etxegabetasuna izango da amaiera,” esan zuen leun.

“Horrela izango ahal da,” erantzun zuen Kunok.

“Makina oso errukibera izan da.”

“Nahiago dut Jainkoaren errukia.”

“Esaldi superstizioso horrekin, esan nahi duzu aire zabalean bizi zintezkeela?”

“Bai.”

“Inoiz ikusi al dituzu, ate-bideen inguruan, Matxinada Handiaren ostean baztertu zituztenen hezurrak?”

“Bai.”

“Hil ziren lekuan utzi ziren gure ikasbide modura. Batzuek alde egin zuten, herrestan, baina haiek ere hil egin ziren... nork jar dezake zalantzan? Eta gauza bera gaur egungo etxegabeekin. Lurraren azalak ez du bizitzarik sostengatzen.”

“Jakina.”

“Iratzeak eta belar apur batek biziraun dezakete, baina forma garaiago guztiak hil egin dira. Aireontziren batek detektatu ditu?”

“Ez.”

“Hizlariren batek haiei buruz hitz egin du?”

“Ez.”

“Orduan zertara dator burugogorkeria hori?”

“Ikusi egin ditudalako,” lehertu zen.

“Ikusi zer?”

“Emakume hura ikusi nuelako iluntzean, niri laguntzera etorri zelako dei egin nuenean, hura ere harrek korapilatu zutelako eta, ni baino zorte handiagoarekin, haietako batek hil zuelako eztarria zulatuta.”

Zoratuta zegoen. Vashtik alde egin zuen eta, ondoren gertatu ziren arazoetan ere, ez zuen Kunoren aurpegia berriro ikusi.

3 Etxegabekoak

Kunoren barrabaskeriaren ondorengo urteetan, Makinan garapen garrantzitsu bi gertatu ziren. Itxuraz iraultzaileak ziren, baina kasu batean zein bestean, gizonen iritzia alde aurretik prestatuta zegoen, eta lehendik ezkutuan zeuden joerak adierazi baino ez zituzten egin.

Lehena arnasgailuak kentzea izan zen.

Pentsalari aurreratuek, Vashtiren modukoek, beti uste izan zuten tontakeria handia zela lurraren azala bisitatzea. Aireontziak beharrezkoak izan zitezkeen, baina zertarako irten jakin-min hutsez eta kilometro bat edo bitan lehorreko motor batean arrastaka ibili? Ohitura zakarra zen, eta agian apur bat itsusia; ez zuen ideiarik sortzen, eta ez zeukan loturarik benetan garrantzitsuak ziren ohiturekin. Beraz, arnasgailuak indargabetu egin ziren, eta haiekin batera, jakina, lurreko motorrak, eta irakasle batzuk izan ezik, kexu baitziren beren ikerketen gaietara heltzea debekatu zitelako, garapena patxadaz onartu zen. Oraindik lurra nolakoa zen jakin nahi zutenek gramofono bat entzun edo zinemargazkiren bat ikusi besterik ez zuten. Eta irakasleek ere amore

eman zuten, ikusi zutenean itsasoari buruzko hitzaldi bat ez zela txarragoa gai berari buruz emandako beste hitzaldi batzuetatik biltzen zenean. “Kontuz lehen mailako ideiekin!” esaten zuen haietatik aurreratuenetako batek. “Lehen eskuko ideiak ez dira existitzen. Maitasunak eta beldurrak eragindako inpresio fisikoak besterik ez dira, eta oinarri zantar horretan nork eraiki dezake filosofia bat? Izan bitez zuen ideiak bigarren eskukoak eta, ahal izanez gero, hamargarren eskukoak, orduan oso urrun egongo baitira elementu asaldagarria den zuzeneko behaketatik. Ez ikasi ezer nire gai honi buruz, Frantziako Iraultza. Horren orde, ikasi zer uste duan Enicharmonek uste zuela, eta hark zer uste zuen Urizen-ek uste zuela, eta hark zer uste zuen Gutchek uste zuela, eta hark zer pentsatzen zuen Ho-Yung-ek uste zuela, eta hark zer uste zuen Chi-Bo-Sing-ek pentsatu zuela, eta hark zer uste zuen Lafcadio Hearn-ek uste zuela eta hark zer pentsatzen zuen Carlylek pentsatu zuela, eta hark zer uste zuen Mirabeauk Frantziako Iraultzari buruz esan zuela. Hamar buru bikain horien bitartez, Parisen isuritako odolak eta Versaillesen hautsi ziren leihoeak zuen eguneroko bizitzan probetxu handiz erabili ahal izango duzuen ideian azalduko dira. Baina ziurtatu bitartekariak asko eta askotarikoak direla, historian autoritate bat beste bati kontra egiteko existitzen baita. Urizenek Ho-Yungen eta Enicharmonen eszeptizismoa ahuldu behar du, eta nik neuk Gutchen oldarkortasunari aurre egin behar diot. Entzuten didazuen horiek, zuek ni baino hobeto zaudete Frantziako Iraultzari buruzko epaia emateko. Zuen ondorengoak zuek baino egoera hobean egongo dira, nik zer uste duan pentsatzen duzuen ikasiko baitute, eta beste bitartekari bat gehituko zaio kateari. Eta, denborarekin” —ahotsa altxatu zuen— “belaunaldi bat etorriko da, gertakarietatik harago, inpresioetatik harago joan dena, belaunaldi erabat koloregabekoa, belaunaldi bat

‘serafikoki libre
nortasunaren orbanetik,’

Frantziako Iraultza ez duena ikusiko gertatu zen bezala, ez eurek nahiko zuketzen bezala, baizik eta gertatuko zatekeen moduan Makinaren garaian gertatu izan balitz.”

Txalo ikaragarriak entzun ziren hitzaldi hartan, eta horrek gizonen gogoan ostenduta zegoen sentimendu bat agertu baizik ez zuen egin: lurreko egitatei entzungor egin behar zitzaielako sentsazioa, eta arnasgailuak ezabatzea lorpen positiboa zelakoa. Aireontziak kendu beharko lirakeela ere proposatu zen. Hori ez zen egin, aireontziak Makinaren sisteman sartuta zeudelako nolabait. Baina urtez urte gero eta gutxiago erabiltzen ziren, eta gero eta gutxiago aipatzen zituzten gizon gogoetatsuek.

Bigarren garapen handia erlijioa berriro ezartzea izan zen.

Hori ere hitzaldi entzutetsu hartan adierazi zen. Inork ezin izan zuen txarto ulertu hitzaldi astunaren amaierako tonu adeitsua, eta oihartzun gogotsua piztu zuen denen bihotzean. Luzaroan gurtza isilean aritu zirenak, hizketan hasi ziren. Makinaren Liburuak eskuetan zeukatenean sortzen zitzaien bake sentsazio bitxia deskribatzen zuten, hango zenbaki jakin batzuk errepikatzeko plazera, nahiz eta zenbakiok esanahi eskasa eraman kanpo-belarrira, botoi bat ukitzeko estasia, garrantzirik gabekoa izan arren, edo txirrin elektriko bat jotzearena, nahiz eta premiagabekoa izan.

“Makinak,” esaten zuten, “jaten ematen digu, jantzi egiten gaitu eta etxea ematen digu; bere bitartez hitz egiten diogu elkarri, bere bitartez elkar ikusten dugu, hartan daukagu geure izatea. Makina ideien laguna eta sineskeriaren etsaia da: makina ahalguztiduna da, betierekoa; bedeinkatua da Makina.” Eta luze baino lehen esaldi horiek Liburuaren lehen orrialdean inprimatu ziren, eta hurrengo edizioetan erritual hura gorespen eta otoitz sistema korapilatsu bihurtu zen. “Erlijio” hitza, berriz, erabat saihestu zen eta, teorian, Makina, oraindik ere, gizonaren sorkuntza

eta tresna zen. Baina, praktikan, guztiek, atzerakoi batzuk izan ezik, jainkotzat gurtzen zuten. Baina ez zegoen batasunik gurtza hartan. Sinestun baten lilura beste fededun batzuk ikusteko erabiltzen zuten optika-xafla urdinak ziren; beste batena konponketa aparatua zen, Kuno bekatariak zizareekin konparatu zuena; beste batena igogailuak ziren, eta beste batena Liburua. Eta bakoitzak honi edo besteari egiten zion otoitz, eta eskatzen zion bere alde egin zezala Makina osoaren aurrean. Jazarpena — hori ere bazegoen. Ez zen hedatu, aurki azalduko diren arrazoiengatik. Baina ezkutuan zegoen, eta “Mekanismo ez-sektarioa” esaten zioten gutxienekoa onartzen ez zuten guztiak etxegabetasunaren arriskuan bizi ziren, eta horrek heriotza esan nahi du, jakina denez.

Bi garapen handi horiek Batzorde Nagusiari egozte zibilizazioaren ikuspegi oso estua edukitzea da. Egia da Batzorde Nagusiak bilakaera iragarri zuela, baina ez ziren izan haien erantzule, inperialismoaren garaiko erregeak gerraren kausa izan ez ziren moduan. Ostera, amore eman zuten presio menderaezin baten aurrean, inork ez zekiena nondik zetorren, eta, hura asetzen zenean, beste presio batek jarraitzen zion, hura ere garaiezina. Horrelako egoera bati aurrerabidea esatea aproposa da. Inork ez zuen aitortzen Makina ezin zela menderatu. Urtetik urtera, eraginkortasun handiagoz eta adimen gutxiagoz zerbitzatzen zuten. Gizon batek zenbat eta hobeto ezagutu bere betebeharrak, orduan eta gutxiago ulertzen zituen bere hurkoarenak, eta mundu osoan ez zegoen munstroa bere osotasunean ulertzen zuenik. Aditu haiek hilda zeuden. Egia esan, jarraibide guztiak utzi zituzten, eta haien ondorengoetako bakoitzak jarraibideetako batzuk menderatu zituen. Baina Gizateria, erosotasun-irrikan, bere ahalbideetatik harago joan zen. Naturaren aberastasunak gehiegi ustiatu zituen. Isilik eta pozik, dekadentzian murgiltzen ari zen, eta aurrerapena Makinaren aurrerapena izatera heldu zen.

Vashtiri dagokionez, bere bizitza lasai joan zen azken hondamendira arte. Gela ilundu eta lo egiten zuen; esnatu eta gela argitzen zuen. Hitzaldiak ematen zituen eta hitzaldiak entzuten zituen. Ezin konta ahala lagunekin trukatu zituen ideiak eta gero eta espiritualago sentitzen zen. Batzuetan lagun bati Eutanasia baimentzen zioten, eta logelatik irteten zen, giza kontzepzio ororen gainetik dagoen etxegabetasunerantz. Vashtiri ez zitzaion asko axola. Arrakastarik gabeko hitzaldi baten ondoren, berak ere Eutanasia eskatzen zuen batzuetan. Baina heriotza-tasak ezin zuen jaiotza-tasa gainditu, eta Makinak ordura arte uko egin zion eskariari.

Arazoak isil-isilik hasi ziren, Vashti haietaz jabetu baino askoz lehenago.

Egun batean, harrituta geratu zen semearen mezu bat jaso zuenean. Ez ziren inoiz komunikatzen, ez zuten ezer komunean, eta Vashtik zeharka baino ez zuen entzun Kuno bizirik zegoela eta ipar hemisferiotik, non hain gaizki jokatu zuen, hegoaldera lekualdatu zutela, hain zuzen ere bere gelatik hurbil zegoen gela batera.

“Bera bisitatzea nahiko du?” pentsatu zuen. “Berriri ez, ez. Eta ez daukat astirik.”

Ez, beste era bateko erokeria zen.

Kunok aurpegia xafla urdinaren gainean agertzeari uko egin zion eta, ilunpetatik solemnitaterik mintzatuz, esan zuen:

“Makina gelditzen ari da.”

“Zer esan duzu?”

“Makina gelditzen ari da. Badakit, badakit zeintzuk diren seinaleak.”

Vashti barre algaraka hasi zen. Kunok entzun eta haserretu egin zen, eta ez zuten gehiago barbarik egin.

“Imajinatzen al duzu gauza absurdoagorik?” esan zion Vashtik lagun bati. “Nire semea zen gizon batek uste du Makina gelditzen ari dela. Erljiogabea litzateke erokeria ez balitz.”

“Makina gelditzen ari da?” erantzun zion lagunak. “Zer esan nahi du horrek? Esaldiak ez du esanahirik niretzat.”

“Niretzat ere ez.”

“Ez da musikarekin azkenaldian izan den arazoei buruz ari, ezta?”

“Ah, ez, ez, jakina. Egin dezagun berba musikari buruz.”

“Jarri diezu kexa agintariei?”

“Bai, eta konpondu egin behar dela diote, eta Konponketa Aparatuaren Batzordera jo behar dudala esan didate. Brisbaneko Eskolako sinfoniak itxuragabetzen dituzten hasperen bitxi eta kirrinkariez kexu nintzen. Oinazetan dagoen pertsona baten antza dute. Konponketa Aparatuaren Batzordeak dio laster atonduko dutela.”

Oso kezkatutik, berriro ekin zion bere bizitzari. Hasteko, musikaren akatsak sumindu egiten zuen. Bestalde, ezin zituen Kunoren hitzak ahaztu. Musika ez zegoela konponduta jakin izan balu —ezin izango zukeen jakin, zeren eta musika gorrotatzen baitzuen— gaizki zebilela jakin izan balu, “Makina gelditzen ari da” zen berak egingo zukeen komentario iraingarria. Menturaz egin zuen, noski, baina kointzidentzia horrek amorrarazi egin zuen Vashti, eta nolabaiteko lotsagabekeriaz hitz egin zion Konponketa Aparatuaren Batzordeari.

Lehen bezala, akatsa laster konponduko zutela erantzun zioten.

“Laster! Berehala!” erantzun zuen Vashtik. “Zergatik kezkatu behar dut musika akastunarekin? Gauzak beti konpontzen dira berehala. Berehala konpontzen ez baduzue, Batzorde Nagusiaren aurrean kexatuko naiz.”

“Batzorde Nagusiak ez du kexa pertsonalik jasotzen,” erantzun zuen Konponketa Aparatuaren Batzordeak.

“Noren bitartez egin behar dut kexa, orduan?”

“Gure bitartez.”

“Orduan kexatu egiten naiz.”

“Zure kexa garaia iristen denean bidaliko da.”

“Kexatu al dira beste batzuk?”

Galdera hori ez zen mekanikoa, eta Konponketa Aparatuaren Batzordeak ez zion erantzun.

“Tamalgarria da!” esan zion beste lagun bati. “Sekula ez da izan ni bezain emakume zoritzarrekorik. Orain ezin naiz nire musikaz ziur egon. Okerragoa da eskatzen dudana bakoitzean.”

“Nik ere arazoak ditut,” erantzun zion lagunak. “Batzuetan zarata desafinatu batek nire ideiak eteten ditu.”

“Eta zer da?”

“Ez dakit nire buruaren barruan edo hormaren barruan dagoen.”

“Jarri kexa, kasu batean zein bestean.”

“Jarri dut, eta nire kexa garaia iristen denean bidaliko dute Batzorde Nagusira.”

Denbora igaro zen, eta jadanik ez ziren akatsengatik haserretzen. Akatsak ez ziren konpondu, baina azken sasoi hartan giza ehunak hain mantso bihurtu ziren, non erraz egokituko baitziren Makinaren apeta guztietara. Brisbane sinfoniaren une goreneko hasperenak ez zuen Vashti gehiago sumintzen; melodiaren parte zela onartu zuen. Zarata desafinatuak, buruan nahiz horman egon, ez zuen bere laguna gehiago sumindu. Eta gauza bera lizundutako fruta artifizialarekin, kiratsa zerion bainu-urarekin, eta poesia-makinak isuritako errima akastunekin. Hasieran, kexa gogorak jarri ziren; gero, amore eman eta ahazturik geratu ziren. Gauzak txarretik okerragora zihoazen, desfiorik gabe.

Bestela gertatu zen lo egiteko aparatuaren matxurarekin. Hori eragozpen larriagoa izan zen. Egun bat iritsi zen mundu osoan —Sumatran, Wessexen, Kurlandiako eta Brasileko ezin konta ahala hiritan— oheak, beren jabe nekatuek deiturik, ez zirela agertzen. Gai barregarria irudi lezake, baina horri esker jar dakioke data gizateriaren gainbeherari. Porrotaren erantzule zen batzordea kexaz josi zuten; ohi bezala, hark Konponketa Aparatuaren Batzordera jo zuen, eta honek ziurtatu zien kexak Batzorde Nagusiari bidaliko zizkiotela. Baina egonezina areagotu egin zen, gizateria oraindik ez baitzen lo egin gabe egoteko bezain moldaeraza.

“Norbait Makina nahasten ari da...” hasi ziren.

“Norbait bere burua errege egiten saiatzen ari da, elementu pertsonala berriz sartzeko.”

“Zigortu gizon hori Etxegabekotasunarekin.”

“Erreskatera! Mendekatu Makina! Mendekatu Makina!”

“Gerra! Hil gizon hori!”

Baina Konponketa Aparatuaren Batzordeak erantzuna eman zuen, eta izu-ikara ondo aukeratutako hitzekin lasaitu zuen. Aitortu zuen Konponketa Aparatua bera zela konpondu behar zena.

Miresgarria izan zen aitorten garbi haren eragina.

“Jakina,” esan zuen irakasle ospetsu batek —Frantziako Iraultzaren inguruko hura, gainbehera bakoitza distiraz erreztatzen zuena— “jakina, gure kexak ez ditugu orain exijituko. Konponketa Aparatuak hain ondo tratatu gaitu iraganean, non denok garen haren erruki eta pazientziaz itxarongo diogun suspertzeari. Garaia denean ekingo dio berriro bere betebeharrei. Bitartean, konpon gaitezen gure ohe, pilula eta beste premia txikirik gabe. Horixe litzateke, ziur nago, Makinaren nahia.”

Milaka kilometrotara, bere entzuleak txaloka hasi ziren. Makinak oraindik elkartu egiten zituen. Itsasoen azpian, mendien sustraien azpian, ikusteko eta entzuteko erabiltzen zituzten hariak zeuden, beren ondare ziren begi eta belarri ikaragarriak, eta lan askoren burrunbak mirabekeriazko jantzi bakar batez janzten zituen beren pentsamenduak. Zaharrak eta gaixoak bakarrik jarraitu zuten esker txarreko, zurrumurrua zabaldu baitzen Eutanasia ere ez zebilela ondo, eta oinazea berriro agertu zela gizonen artean.

Zaila egin zen irakurtzea. Kutsadura bat sartu zen atmosferan eta bere argitasuna moteldu zuen. Batzuetan, Vashtik nekez ikusten zuen bere gelaren alde batetik bestera. Airea ere nazkagarria zen. Ozenak izan ziren kexak, ahalmelik gabekoak erremedioak, heroikoa izan zen hizlariaren doinua oihukatzen zuen bitartean: “Adorea! Adorea! Zer axola dio Makinak dabilen bitartean? Harentzat iluntasuna eta argia bat dira.” Eta handik apur batera gauzak berriro hobetu ziren arren, antzinako distira ez zen inoiz berreskuratu, eta gizateria ez zen inoiz suspertu ilunabarrean sartzetik. “Neurriei” buruzko eta “behin-behineko diktadura” bati buruzko hizketa histeriko bat izan zen, eta Sumatrako biztanleei eskatu zitzaien zentral elektriko nagusiaren funtzionatzeko moduarekin ohitzeko, aipatutako zentral elektriko Frantzian zegoelarik. Baina, gehien bat, izua zen nagusi, eta gizonek Liburuei otoitzean xahutzen zituzten indarrak, Makinaren ahalguztiduntasunaren froga nabariak ziren-eta. Izua mailakatu egin zen — batzuetan itxaropenaren zurrumurruak sortzen ziren — ia konponduta zegoen Konponketa Aparatua — Makinaren etsaiak kontrolpean zeuden — “nerbio-gune” berria berriak sortzen ari ziren, lana lehen baino askoz ere bikainago egingo zutenak. Baina egun batean, inolako abisurik eman gabe, alde zurririk ahulezia zantzurik eman gabe, komunikazio sistema erabat lehertu zen mundu osoan, eta mundua, ezagutzen zuten moduan, amaitu egin zen.

Vashti hitzaldi bat ematen ari zen une horretan, eta hasierako azalpenak txaloz jaso zituzten. Aurrera jarraitu zuenean entzuleak isildu egin ziren, eta azkenean ez zen zaratarik entzuten. Apur bat nahigabeturik, adiskide bati deitu zion, errukian espezialista zena. Hotsik ez: zalantza barik, laguna lotan zegoen. Eta gauza bera deitzen saiatu zen hurrengo lagunarekin, eta hurrengoarekin, Kunoren ohar kriptikoa gogoratu zuen arte, “Makina gelditzen ari da”.

Esaldiak ez zuen oraindik ezer adierazten. Betierekotasuna gelditzen ari bazen, laster abiatuko zen berriro.

Adibidez, oraindik argi eta aire pixka bat zegoen, ordu batzuk lehenago eguratsak hobera egin zuen. Han zegoen Liburua, eta Liburua han zegoen bitartean segurtasuna zegoen.

Gero lur jota geratu zen, zeren eta, jarduerak gelditzearekin batera, ustekabeko izu bat sortu baitzen: isiltasuna.

Inoiz ez zuen isiltasuna ezagutu, eta hura etortzeak ia hil egin zuen; izan ere, milaka eta milaka pertsona hil zituen. Jaio zenetik, etenik gabeko urrumadaz inguratua egon zen. Biriketarako aire artifiziala nola, durundia belarrirako hala, eta oinaze mingarriek burua zeharkatu zioten. Eta zer egiten ari zen ia ez zekiela, aurrera egin zuen estropezuka, eta inoiz erabili gabeko botoiari sakatu zion, gelako atea irekitzen zuen hura.

Gelako atea banda simple batekin zebilen. Ez zegoen zentral elektrikoarekin lotuta, urruneko Frantzia hiltzen ari zen hura. Zabaldu egin zen, Vashtiren baitan itxaropen neurrigabeak piztuz, Makina konponduta zegoela pentsatu baitzuen. Zabaldu egin zen, eta askatasunerantz kiribiltzen zen tunel iluna ikusi zuen. Begiratu bat eman, eta atzera egin zuen. Izan ere, tunela jendez gainezka zegoen — bera izan zen hiri hartan larritu zen ia azkena.

Jendea gorroto zuen, oro har, eta pertsona haiek bere ametsik okerrenetako amesgaiztoak ziren. Jendea arrastaka zebilen, garrasika, aieneka, arnasestuka, elkar ukitzen, ilunpetan desagertzen eta, lantzean behin, oholtzatik behera bultzatuta erortzen ziren errail elektrifikatueta. Batzuk txirrin elektrikoaren inguruan ari ziren borrokan, deitu ezin ziren treni dei egin nahian. Beste batzuk oihuka ari ziren Eutanasia eskatzeko edo arnasgailuak eskatzeko, edo Makinaren aurka biraoka ari ziren. Beste batzuk geletako ateetan zeuden, bera bezala, bertan gelditzeko edo alde egiteko beldurrez. Eta iskanbila guztiaren atzean isiltasuna zegoen, lurraren ahotsa eta joan diren belaunaldien ahotsa den isiltasuna.

Ez, bakardadea baino txarragoa zen. Atea berriro itxi eta eseri egin zen amaieraren zain. Desintegrazioa aurrera zihoan, karraskada eta iskanbila ikaragarri lagunduta. Aparatu Medikoari eusten zioten balbulak ahuldu egin ziren itxuraz, apurtu eta sabaitik zintzilik geratu baitzen modu beldurgarrian. Zorua altxatu eta erori egin zen, eta Vashti aulkitik bota zuen. Hodi bat beregana joan zen sugearen erara. Eta, azkenean, azken lazgarrikeria etorri zen: argia urritzen hasi zen, eta orduan jakin zuen zibilizazioaren egun luzea amaitzen ari zela.

Jira-biraka ibili zen, hartatik salba zezaten otoitz eginez, nolana ere, Liburuari musu emanetz, botoi guztiak banan-banan sakatuz. Kanpoko iskanbila gero eta handiagoa zen, eta horman barrena ere sartzen zen. Astiro, gelaren distira moteldu egin zen, islak ezabatu egin ziren metalezko etengailuetatik. Orain ez zuen irakurketa-mahaia ikusten, ez Liburua, nahiz eta eskuan eduki. Argia soinuaren ihesaren atzetik etorri zen, airea argiaren atzetik zebilen, eta jatorrizko hutsunea aspaldi baztertua izan zen haitzulora itzuli zen. Vashtik jira-biraka jarraitu zuen, antzinako erlijio bateko fededunek bezala, garrasika, errezatzen, botoiak esku odoleztatuz sakatzen.

Horrela ireki zuen espetxea eta egin zuen ihes — izpirituz egin zuen ihes: hala iruditzen zait behintzat, nire gogoeta bukatu baino lehen. Gorputzez ihes egin duela — ezin dut hori

antzean. Ezustean, atea irekitzeko etengailua jo zuen, eta azalean sentitu zuen aire zikinaren boladak, belarrietan entzun zituen xuxurla ozenek, berriro tunelaren aurrean zegoela esan zioten, gizonak borrokan ikusi zituen plataforma ikaragarri hartan. Orain ez ziren borrokan ari. Xuxurlak besterik ez ziren gelditzen, eta negar-intziri txikiak. Ehunka ari ziren hiltzen ilunpetan.

Negarrez hasi zen.

Malkoek erantzun zioten.

Gizateriatik egiten zuten negar, bi haiek, ez euren buruengatik. Ezin zuten jasan hura izatea amaiera. Isiltasuna erabatekoa izan baino lehen, bihotza zabaldu zitzaizkien, eta lurtean zer izan zen garrantzitsua jakin zuten. Gizona, haragi ororen lorea, izaki ikusgai guztien artean nobleena, noizbait jainkoa bere irudira egin zuena eta bere indarra konstelazioetan islatu zuen gizona, gizon eder biluzia hiltzen ari zen, ehundu zituen jantzetan itota. Mendez mende lan egin zuen, eta hona hemen bere saria. Egia esan, jantziak zerutiarra zirudien hasieran, kulturaren kolorez bete, pairamenaren hariz josia. Eta zerutiarra izan zen, jantzia eta ez besterik izan zen bitartean, gizonak nahi zuenean kendu zezakeen eta bere arima den esentziatik, eta bere gorputza, hura ere jainkozkoa, den esentziatik bizi zitekeen. Gorputzaren aurkako bekak — haxegatik egiten zuten negar gehienbat; mendeetan giharren eta nerbioen aurka egindako bidegabekeriak, eta atzemateko balio dizkiguten bost atari horiek — eboluzioari buruzko berbeekin txikiagotuz, hariak eta gorputza ore zurixka bat izan arte, ideien etxe koloregabea, izarren jabe egin zen izpirituaren azken astinaldiak.

“Non zaude?” esan zuen negar-zotinka.

Ilunpeko ahotsak erantzun zuen, “Hemen.”

“Ba al dago itxaropenik, Kuno?”

“Ez, bat ere ez guretzat.”

“Non zaude?”

Vashti hildakoen gorpuen gainetik joan zen arrastaka. Kunoren odolak bor-bor egin zuen Vashtiren eskuetan.

“Arinago,” esan zuen Kunok, “hiltzen ari naiz, baina elkar ukitzen dugu, elkarrekin egin dezakegu berba, Makina erabili barik.”

Kunok musu eman zion.

“Geurera itzuli gara. Hil egingo gara, baina bizitza berreskuratu dugu, Wessexen gertatu zen bezala, Ælfridek daniarrak bota zituenean. Kanpokoek, perlaren kolorea duen hodeian bizi ziren haiek dakitena badakigu guk ere.”

“Baina, Kuno, egia da? Oraindik gizonak daude lurtearen azalean? Hau, tunel hau, iluntasun pozoitsu hau ez da — ez da benetako amaiera?”

Kunok erantzun zion:

“Ikusi egin ditut, haiekin mintzatu naiz, maitatu egin ditut. Laino eta garo artean ezkututzen dira gure zibilizazioa gelditu arte. Gaur Etxegabekoak dira, bihar...”

“Oi, bihar... ergelen batek Makina abiaraziko du berriro, bihar.”

“Ez, inoiz ez,” esan zuen Kunok, “inoiz ez. Gizateriak eskarmentutik ikasi du.”

Hizketan ari zela, hiri osoa hautsi zen abaraska bezala. Aireontzi bat ate-bidetik sartu zen kai hondatu batera. Talka egin zuen eta lehertu egin zen, galeria guztiak altzairuzko hegalekin zarrastatuz. Une batez, hildakoen nazioak ikusi zituzten eta, haiekin elkartu aurretik, orbangabecko zeruaren zatitxoak bistatu zituzten.